Para esa gente, el milagro del crecimiento consiste en extender miseria laboral y en aumentar beneficios y sueldos -bonus- para los directivos de las empresas. Por ejemplo, los 10 millones de euros del bonus del presidente de Euskaltel son 400 empleos durante un año a 25.000 euros al año, y 600 si fueran 16.800 (que son 1.200 euros x 14 pagas).

La importancia del salario. Muñoa insistió en el hecho de que poner cara a la precariedad -base del sistema económico actual- para poner en el centro del debate social el injusto reparto de



› J. JAIO

El 10 de noviembre, ELA dio el pistoletazo de salida a una ambiciosa campaña

informativa con la que quiere hacer visible la apuesta del poder político y económico por la precariedad laboral, en contraposición con los altos beneficios de las empresas. Tal como denunció el secretario general de ELA -Adolfo Muñoz- en la presentación de la campaña, "nunca los salarios han tenido una participación más baja en el reparto de la riqueza; sólo la organización y la lucha cambiarán esta injusticia promovida por gobiernos y patronal". Durante los próximos meses, ELA empapelará polígonos industriales y calles, y repartirá decenas de miles de folletos informativos explicando las terribles consecuencias

del empobrecimiento que nos quieren imponer y las alternativas que propone el sindicato.

Tres ejes comunicativos. La campaña tendrá tres ejes comunicativos generales. El primero, denunciar la extensión de salarios miserables, el incremento de los beneficios empresariales y el aumento de las desigualdades. El segundo, resaltar el valor del sindicato como instrumento para organizar y reforzar la identidad colectiva frente al individualismo; la solidaridad de clase frente al sálvese quien pueda. El tercero, dar valor a la lucha sindical frente a la resignación; una sociedad democrática sin conflicto social es lo más parecido a una dictadura.

Con esta campaña, el sindicato pretende, por un lado, limitar el efecto de la pro-



EGON BADAGO

VUESTROS BENEFICIOS
NUESTRA MISERIA LABORAL

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

KANPAINA BAT... ZERTARAKO?

- LAN-MISERIA ETA ENPRESEN ETEKIN HANDIAK AGERIAN UZTEKO.
- SINDIKATUAREN BALIOA AZPIMARRATZEKO.
- ERREIBINDIKAZIOARI ETA BORROKARI GARRANTZIA EMATEKO.

la riqueza y la dignidad en el trabajo. En este sentido, la campaña insistirá en las consecuencias del empobrecimiento general que conlleva una sociedad con bajos salarios e intentará socializar la desesperiación en la que viven los colectivos empobrecidos. Y no sólo eso, insistirá, también, en las consecuencias futuras de esta situación cara al cálculo de una pensión. La ecuación es clara: trabajadores/as pobres es igual a pensionistas pobres.

Reto sindical enorme. La campaña interpela también al sindicato y a

nuestra militancia: ¿qué papel debe desempeñar ELA ante este deterioro laboral y social sin precedentes?, ¿qué debe hacer ELA para tratar de impedir la caída salarial?, ¿qué hacemos ante la imposición de salarios de 500 ó 600 euros? ¿se puede vivir con dignidad trabajando 12 horas al día a 5 euros la hora?

La respuesta la dio Amaia Muñoa en el acto de presentación de la campaña: “queremos llegar a las empresas y sectores, realizar mapas de precariedad, buscar dónde está, organizarnos y plantar cara allá donde podamos; y superando el

Kanpaina horrek ekintza sindikala eta negoziatio kolektiboa suspertuko ditu sektore eta enpreetan

espacio de la empresa o sector, busquemos conseguir conciencia social contra la precariedad”, afirmó. “Tolerancia cero a jornadas sin fin a 5 euros la hora”, dijo tajante.

La secretaria general adjunta de ELA insistió en que el sindicato no puede mirar a otro lado y que será una campaña larga porque la precariedad ha llegado para quedarse.

Muñoa adelantó, finalmente, que todo lo anterior debe suponer una activación de la acción sindical y la negociación colectiva en sectores y empresas. “Si trabajamos bien mejoraremos también en organización y compromiso militante”, auguró.

Los poderes públicos, actores y colaboradores necesarios en la extensión de la precariedad.

La campaña, como no podía ser de otra manera, interpela a los poderes públicos sobre su política salarial y de condiciones de trabajo. El sector público condiciona un determinado modelo de sociedad al tomar decisiones como empleador: ha destrozado la negociación colectiva, elimina mucho empleo y es precursor en la política de externalización.

Tal como denunció durante la presentación de la campaña el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki, “no vemos más que hipocresía. El gobierno vasco está poniendo todo tipo de zancadillas a la ILP de ELA que aspira a algo tan básico como garantizar el cumplimiento del convenio a los trabajadores/as de las subcontratas públicas. Es cinismo que Educación esté licitando obras en colegios primando la oferta más baja (hasta un 30% por debajo de lo presupuestado). El Departamento sabe que con esos precios los convenios no se cumplen y a nuestra gente se le explota. Es lo que sucede en Musikene de Donostia, en la ikastola de Azkoitia...”, enumeró.

“Cuando les sacas los colores con estas cuestiones niegan cualquier responsabilidad sobre el hecho de que haya gente que trabaja 12 horas al día a 5 euros la hora”, continuó. “Lo mismo que hace el presidente de Confebask, con las subcontratas de su empresa Zikotz... Mira para otro lado, como si la cosa no fuera con ellos, como si la precariedad fuera algo dado y no buscado...”, criticó.

“Esa es la patronal -pública y privada que tenemos- que tenemos. Sus beneficios son nuestra miseria”, rubricó el secretario general de ELA.

Campaña larga y a nivel global. La campaña contra la precariedad puesta en marcha por ELA continuará durante el año 2016. Está previsto que se lleven a cabo diferentes acciones confederales, comarcales, en sectores y empresas.

Los ejes comunicativos, sobre todo el referente al tema de las condiciones de trabajo, tendrán concreción en cada federación, sector y empresa. Esto significa que los contenidos generales de la campaña serán complementados con la propaganda que elaboren las federaciones. Así pues, habrá una propaganda general -que debe llegar a todos los sitios- y otra particular, de cada ámbito.

Reto formativo y organizativo.

“ELA quiere ser una organización útil y para ello vamos a intentar organizar a la gente más débil”, anunció Muñoz. De momento, en torno a 3.000 delegados/as de ELA pasarán por cursos de formación para ser capaces de identificar la precariedad en sus empresas y sectores y poner en marcha planes de trabajo para hacerla frente. ELA está en guerra contra la precariedad.



EZ DIRA PIRATAK, KORTSARIOAK BAIZIK

ELAk pauso bat aurrera eman du, eta aurpegia, izena eta abizenak jarri dizkie langileriarentzat eredu prekario eta zekena sustatzen dutenei. Yolanda Barcina (Telefónica), Pello Gibelalde (Adegi), Alberto García Erauzkin (Euskaltel), Jose Antonio Sarria (CEN), Josu Jon Imaz (Repsol), Florentino Perez (ACS), Ignacio Sanchez Galan (Iberdrola), Gregorio Villalabeitia (Kutxabank)... dira seinatuak batzuk.

Pentsa liteke soldata milioiengan berru kritikak egin ahal izatea sartuta dagoela. Baina ez. Guk badakigu ez zaiela batere gustatu kaleko karteletan beren aurpegiak, beren soldatak eta beren zereginak agertzea. Baliteke telefonoa hartu eta gobernuko beren lagunei deitu izana... Edo, are okerrago dena, ustezko dei hori ere beharrezkoa ez izatea, eta euskal gobernuak ofizioz jardun izana.

Edonola ere, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu sailburu Angel Toñak aitaren batean bere elkartasuna agertu die, eta sindikatuari aurpegiatu dio “persona zehatzak” “gizarteko gaizkileak balira bezala” seinatu izana. Sailburuak jakitera eman du telefonoz deitu ziola Confedasko buruari, sindikatuaren gaizki esanetan aurrean Eusko Jaurlaritzaren babesa agertzeko.

Beste gertakari batzuetan ere prestutasun berbera agertzea gustatuko litzaiguke. Esaterako, orain dela gutxi Santurtzin enpresa batek alta eman dio Gizarte Segurantzari bere langile bati, lan-istripuz hil ondoren...

Izendatu behar dira gauzak duten izenarekin, eufemismorik gabe. Sindikatuak esan duena zera da: beste batzuen kontura dirua erruz irabazten dutenak piratak dira. Eta ELAk egin duena ez da purrustadak botatzea, jendaurrean benetako salaketa bat egitea baizik.

Puntu batean, hala ere, bai emango diodala arrazoia ELAren kanpainaz sumindutako talde horri: sindikatuak gaizki jarri die izena, ez baitira piratak, kortsarioak baizik. Lehenak beren kabuz zebiltzan, bigarrenak koroarentzat ziharduten. Eta orain ere botere politikoa eta ekonomikoa eskutik doaz. Ikusi besterik ez dago.



Lan-miseria jasaten duen jendeak izen-abizenak baldin baditu, miseria-ekarleek, zergatik ez?



PREKARIETATEARI BURUZ...



Yolanda Barcina
TELFÓNICA

Regaló la Caja de Navarra (CÁN) a Caixabank (accionista de Telefónica). Puertas giratorias: 200.000 euros anuales.

Ex presidenta del Gobierno de Navarra

VUESTROS BENEFICIOS NUESTRA MISERIA LABORAL



ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Pello Gibelalde
ADEGI

Gure seme-alabak Txina edo Indiarra joatea nahi du, "eroso" bizi baitira.



Alberto García Erazuñkin
EUSKALTEL

50 millones de euros de la dirección equivalen a 2.000 empleos cada año con un salario de 25.000 euros.



José Antonio Sarría
CEN Patronal de Navarra

Impulsor de redes clientelares en Caja Navarra, peón del régimen y de la jerarquía empresarial.



Josu Jon Imaz
REPSOL

1.500 enplegu suntsituko ditu etekinak handitzeko. *Jauriaritzako Sailburu ohia.*



Florentino Pérez
ACS Actividades de Construcción y Servicios

Bere agintea gobernuen eskutik eta langileak esplotatzetik eraiki du.



Ignacio Sánchez Galán
IBERDROLA

Fomenta la explotación. Hasta Septiembre de este año 1.919 millones de euros de beneficios en Iberdrola. 42.000 euros... diarios.



Gregorio Villalabeitia
KUTXABANK

Destruye 2.000 empleos para alcanzar 500 millones de beneficio y privatiza las cajas.

Enpresa askok etekina atera nahi du gure jendea bizi den txirotasun eta behar egoeratik, eta leporatzen dituen baldintzekin benetako esplotazioa egiten du. Halere, gehiago nahi dute: pobre eta eskubiderik gabe nahi gaituzte.

EURAK, ORDEA, GERO ETA ABERATSAGO

Hau da txanponaren beste aldea. Gure miseria enpresen irabaziaz puzteko oinarria da; horrela saritzen dituzte beren arduradunak eskandaluzko soldata, pentsio eta bonusekin. Langileon miseria hedatzeko planak egiten dituztenak erruz aberasten dira. Funtsezko helburua akziodunaren etekinak handitzea da, kosta ahala kosta.

Enpresa askok, esaterako Kutxabanke, Iberdrolak, Euskaltel edo Nafarroako ISN Taldeak, langileon eskubi-deen lepotik etekin handiena lortu nahi dute; bitartean, zuzendaritzak dirutza bideratzen du beren poltsikoetara. Enpresa horiek agintean dauden alderdiekin lotura estua dute, eta eredu prekarioa ezartzen dute. Honek agerian uzten du jende honek ez duela ez lotsarik, ez etikarik.

SOLDATA KASKARREK POBREZIAREN KATEA SORTZEN DUTE

Murrizketa sozialek, gure pentsio gero eta txikiagoak... erabaki politikoak dira. Errenta altuei, enpresei eta kapitalari zergak jaisteak eta soldata apalak orokortzeak bidezko gizarte-eredua apurtu eta geneukan ongizate-estatu urria ere birrintzen du.

Gure oraina gogorra da, eta etorkizuna ez da errazagoa izango. Soldata txarrekin ezin da pentsio duinik ordaindu. Bazekiten soldatak eta kotizazio sozialak jaitziz gero pentsioak ere moztu egin beharko zirela; ondorioz, atea irekitzen zioten negozio pribatuari. Langile askok, kontratu tenporal eta partzialekin 500, 600, edota 700 euro irabazita, erretiratutakoan ez du pentsio duinik izango, eta are aukera gutxiago izango du pentsio pribatu bat osatzeko.

Hezkuntzan, Osasungintzan eta gizarte-prestazioetan izan diren murrizketekin gauza bera gertatzen da: kapitalak ez badu zergarik ordaintzen eta soldatak urriagoak badira, alternatiba bakarra murriztea da. Batzuk, gehienok, galtzaile gara, eta beste batzuk oparo bizi dira.

ELAK ERABILGARRI IZAN NAHI DU

Egoera zail honetan ELAk erabilgarri izaten jarraitu nahi du, babesgabezia laboral eta sozial gero eta handiagoari aurre egiteko. ELAk helburu horietarako gobernuari eta patronalari ez die babesik emango. Beraz, lantokietan oinarri sindikal antolatu bat behar dugu, errespetua irabazteko. Ez da erraza; erreformen beste helburu bat izan da sindikatuoi ahalmena kentzea beren planak eragozteko aukerarik izan ez dezagun. ELAn ziur gaude antolatuz gero beldurra gaudituko dugula; esaterako, gure enpresa edo sektorean aldarrikapen-plataforma bat egin daiteke eta borrokatu, gure lana eta gure kideona duintzeko.

Krisi madarikatu honetan lana berriro gizatiarragoa izan dadin aldarrikatzeko hamaika arrazoi dugu. Hori gauzatzeko antolatu egin behar gara.

LANEKO ETA SOZIALA DEN MISERIA ZABALTZEN DOA

Gobernu eta enpresarioek krisia amaitu dela esan arren, kaleko jendeak eta langileok badakigu hori ez dela egia. Errealitate laboral eta soziala lazgarria da. Soldatek aberastasunean duten zatia inoiz baino txikiagoa da; kontratu berriak, sekula baino miserableagoak, eta diru gehien dutenek ez dute inoiz orain bezain zerga gutxi ordaindu.

Beren komunikabideak ezkututzen duten errealitate hau azken urteetan aplikatu izan diren politikien ondorio dira; bertan, Madrilen eta Europan erabakitako politikak: lan munduaren eta soziala den guztiaren aurkako erreforma eta murrizketak. Hauek bereziki emakume eta gazteei eragiten die.

Erreforma eta murrizketak ez dira amaitu. Patronalaren aginduz beste erreforma laboral baten oinarriak prestatzen ari dira. Abusuz jokatzeko dute; esplotatu egiten dute; 500, 600 eta 700 euroko soldatak inposatzen dira, eta 10, 11 edo 12 orduko lanaldiak; ordaintzen ez diren aparteko orduak sartzen dira... Aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak kasu gehiegitan erabiltzen dira.

ELA destapa la financiación de CEN, UGT y CCOO a cargo del presupuesto de Navarra

ELA HA DENUNCIADO QUE LOS CONVENIOS DEL SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO CON UGT, CCOO Y LA PATRONAL CEN SON INCOMPATIBLES CON EL LLAMADO CAMBIO POLÍTICO

ELAk, dagoeneko, sei errekurto ditu erregistratuak, non Enpleguaren Nafar Zerbitzuak, hiru antolakunde horiei zenbait milioi euro ematearren, lege bat saihestu zuela frogatzen den

de esta financiación (más de 5 millones de euros, según lo anunciado por la directora del SNE en el Parlamento), ELA ha decidido combatir este fraude acudiendo a la vía judicial. Cabe destacar que los recursos de alzada ya registrados por este sindicato deberán ser resueltos por la misma Administración foral. Se tratará, por tanto, de un compromiso directo del nuevo Gobierno, que aún tiene la oportunidad de corregir las prácticas clientelares diseñadas por Sanz y Barcina o, en caso contrario, asumirlas e incluirlas en su práctica de Gobierno.

Estos recursos apuntan a un presunto fraude de ley perpetrado por el Parlamento de Navarra el pasado 12 de marzo, con los votos a favor de UPN y PSN, y las abstenciones de PP e I-E. Con una modificación presupuestaria, el Gobierno consiguió cambiar el nombre y la ubicación de partidas por valor de 5,4 millones de euros para seguir otorgando esos fondos directamente a CEN, UGT y CCOO. Así, intentó eludir el Real Decreto-ley 4/2015, que estipula tajantemente que todos los fondos públicos destinados a formación para el empleo deben adjudicarse en concurrencia abierta.

Por ello, los nuevos convenios cambiaron las palabras "curso, docente o alumno" por denominaciones como "itinerario, cualificación o usuario", en un burdo intento de engañar a los servicios jurídicos del SNE. Lejos de conseguirlo, estos funcionarios echaron para atrás dichos convenios, y por ello CEN, UGT y CCOO no pudieron impartir sus cursos ni financiarse del Presupuesto público hasta que no se cambiaron estos servicios jurídicos.



› REDACCIÓN

ELA lleva más de 20 años denunciando que tras la pantalla de los llamados Planes de Empleo -acordados entre el Gobierno de Navarra, CEN, UGT y CCOO- se esconde, en realidad, la financiación de las estructuras y el personal de estas tres organizaciones, más allá del verdadero coste que suponga impartir la formación para ocupados/as y desempleados/as. Han sido cientos de millones de euros (1.430 sólo entre 1999 y 2009) destinados a fortalecer el sindicalismo de concertación, las mesas de diálogo social y, en definitiva, la sumisión al poder político y económico.

Sin embargo, en 2015 ELA ha convertido esa certeza en prueba irrefutable al acceder al texto de los convenios-subsidiación que el Servicio Navarro de Empleo (SNE) firma con estas tres organizaciones. Este año hay en vigor unos 30 convenios por valor de 11 millones de euros, de los que por lo menos 3,9 millones se destinan al salario de responsables y liberados de CEN, UGT y CCOO -con nombres y apellidos- bien conocidos por su actividad empresarial o sindical (y en ningún caso formativa).

Para ELA, es hora ya de acabar con uno de los pilares fundamentales del régimen, sostenido todavía hoy con

dinero público del Presupuesto de Navarra.

Las subvenciones del Servicio Navarro de Empleo a UGT, CCOO y CEN, en los tribunales. Es por eso que ELA ha emprendido la vía judicial para que sean declarados fuera de la ley estos convenios de formación. El pasado 6 de noviembre, ELA registró seis recursos de alzada contra otras tantas resoluciones del Servicio Navarro de Empleo, paso previo para presentar demandas judiciales.

Estos seis recursos son una muestra suficiente de todo el entramado político-jurídico diseñado por los Gobiernos de UPN y PSN en connivencia con CEN, UGT y CCOO para financiar directamente las estructuras y los gastos ordinarios de estas organizaciones, al margen de la función inicial que debían cumplir: la formación para el empleo.

A la vista de que el nuevo Gobierno presidido por Uxue Barkos ha adelantado su intención de mantener la mitad

ELAk 20 urte luze darama ustelkeria salatuz, CCOO, UGT eta CENeko egituren eta pertsonalaren finantzabideetan dagoena

ELAk gogoan duen Nafarroako Enplegu Zerbitzua, benetan publikoa, enplegurako prestakuntza langileen eta langabeen alde kudeatuko duena da

Además de recurrir a la vía judicial, ELA está realizando una intensa labor sindical en defensa de un Servicio Navarro de Empleo auténticamente público, que de verdad gestione la formación para el empleo en favor de las trabajadoras/es y desempleadas/os, sin que ni un euro de sus presupuestos se utilice para financiar salarios ni gastos ordinarios de la estructura de CEN, UGT y CCOO.

El Presupuesto de Navarra de 2015 destina 3,9 millones a pagar más de 100 sueldos en UGT, CCOO y CEN.

De entrada, el dinero para formación en el empleo que debe asignarse por concurso abierto se ha camuflado bajo convenios para concedérselo directamente a estas tres organizaciones. Y además, estas partidas del Presupuesto de Navarra de 2015 se destinan a financiar las estructuras, personas y gastos ordinarios de UGT, CCOO y CEN.

De hecho, casi todos estos convenios reconocen como actividades a desarrollar las funciones ordinarias de cualquier organización sindical (nada que ver con formación), tales como visitas a empresas, realización de estudios, impresión de folletos informativos, atención de consultas...

Entre los innumerables datos disponibles, destacan algunos por su crudeza en el uso ilegítimo de fondos públicos. En los 17 convenios analizados por ELA se destinan, al menos, 3,9 millones de euros a pagar nóminas de empleados/as de UGT, CCOO y CEN, cifra que daría para abonar unos 122 salarios anuales (coste laboral medio en Navarra). Y lo más grave: esa cifra no

PROPUESTAS DE ELA PARA UN NUEVO SNE

1. CAPACIDAD DE DECISIÓN SOBRE LAS POLÍTICAS DE EMPLEO.

- *Navarra no debe ser una sucursal del modelo estatal.
- *Los criterios fijados en el Convenio Económico deben respetarse.

2. REFUNDACIÓN DEL SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO.

- *Por una gestión pública y democrática del SNE.
- *Potenciar lo público.
- *No a la privatización.
- *Transparencia en el SNE.

3. CAMBIO RADICAL DE LA FORMACIÓN PARA EL EMPLEO.

- *Poner el modelo al servicio de las necesidades de la economía productiva y de los trabajadores y trabajadoras.
- *Primar el papel de los centros de formación profesional.

incluye el pago a docentes de cursos, recogido en otras partidas.

En el caso de la CEN, además, figuran 1,7 millones de euros destinados a charlas y conferencias para su propia promoción, con pagos de miles de euros a ponentes bien conocidos.

Por si fuera poco, en esos 17 convenios se destinan 718.000 euros a sufragar los gastos generales de UGT, CCOO y CEN (luz, agua, teléfono, dietas, kilometrajes de sus liberados...), una cifra desmesurada que se paga desde el presupuesto público como si fueran sedes del Gobierno.

Para rematar, hay partidas de 18 euros destinadas, incluso, a costear los bolígrafos con los que UGT y CCOO firman los convenios. Y por cada convenio se abonan 8.000 euros para los honorarios del auditor que supuestamente fiscaliza a estas organizaciones (y de esta forma, evitan presentar las facturas directamente al SNE).

ELA comprobó con sorpresa cómo a los pocos días de hacer pública esta denuncia, el nuevo Gobierno ocultó los nombres de las personas que han cobrado sus salarios con esta fórmula, tanto en 2014 como en 2015.

Como no puede ser de otra manera, ELA ha instado a los partidos políticos a poner en marcha una comisión de investigación parlamentaria y a no incluir en los

CRONOLOGÍA DE UN ESCÁNDALO

***Años 90:** El Gobierno de UPN subcontrata la formación para el empleo a CEN, UGT y CCOO (Planes de Empleo), en lugar de impartirla directamente en centros públicos (escuelas profesionales, FP, Iturrondo).


***Marzo de 2015:** Tras el escándalo de la corrupción de UGT y CCOO en otras CCAA, el Gobierno de Rajoy obliga a sacar a concurso abierto toda la formación para el empleo. Quedan prohibidos los convenios directos con sindicatos y patronales.

***Abril de 2015:** entra en vigor la Ley Foral aprobada por UPN y PSN (abstención de PP e I-E) para sortear la prohibición estatal de los convenios a UGT, CCOO y CEN. Se les entregan 5,4 millones de dinero público en fraude de ley (formación camuflada, financiación de sus estructuras).

***Mayo-Julio de 2015:** De entrada, los servicios jurídicos del SNE echan atrás esos convenios por ilegales. Sin embargo, los responsables del SNE en funciones aprueban los convenios, que alcanzan los 11 millones de euros.

***Agosto-octubre de 2015:** ELA accede a varios de estos convenios, comprueba que sirven para financiar la estructura de CEN, UGT y CCOO y lo denuncia públicamente.

***Noviembre de 2015:** la nueva directora del SNE, cargo del Gobierno consensuado con CEN, UGT y CCOO, defiende los convenios aunque los reduce a la mitad (5 millones) para 2016.



MITXEL LAKUNTZA, NAFARROAKO KOORDINATZAILEA

“ELAk ustelkeria errotik erauzi nahi du, sindikalismoa berdintasunez egiteko bermeak edukitzeko”



-Zertan oinarritzen du ELAk bere salaketa?

-Aspalditik salatu izan dugu Nafarroako CEN, UGT eta CCOO antolakundeak diru publikoaren kontura finantzatzeko direla; baina orain arte inoiz ez dugu hain argi ikusi, izen-abizenak eta guzti, nola ordaintzen dituzten soldadak eta gastu arruntak.

-ELA hiru antolakunde horien kontra doa, edo eredia da auzitan jartzen dena?

-Funtsezkoa, noski, eredia aldatzea da. Hasteko, dituen eginkizunak betetzen ez dituelako. Azkenean helburua ez da enplegurako prestakuntza, antolakunde batzuen egiturak diru publikoaz ordaintzea baizik. Sistema osoa dago kutsaturik, jatorrizko eginkizunari begira egon beharrean, beste norabait begira dago eta. Hori bera gertatu zen Los Arcosko zirkuitoarekin edo Reyno de Navarra Arenarekin, diru publikoa alferrik xahutu da erregimenaren euskarrien mesedetan: UGT, CCOO eta, jakina, CEN. Ez dugu ahortzi behar sare hori bi helbururekin sortu zela: gobernuari bake soziala bermatzea eta sindikatu horiek lehenestea.

-CCOOk eta UGTk diote beren aurkako kanpaina dela, eta ELAk eta LABek ere

Mantener los privilegios de CCOO, UGT y la CEN a costa del erario público es incompatible con el cambio

diru-laguntzak jasotzen dituztela EAEn...

-CENek ez du oraindik deus erran; UGT eta CCOO, aldiz, argudio orokorrak emanez defendatzen dira; adibidez, kontu hori burutik kendu ezinik gabiltzala erranez. Baina UGTk datu bat zuzendu nahi izan digunean, are okerrago geratu dira, zeren guk argi aski frogatu genuen liberatu bat zutela, lan sindikaletan arituz eta SNETik kobratuz. Zuzendu nahi ziguten gauza bakarra faltsua izan da. Eta CCOOk ez dio gaiari ekin nahi izan, ongi baitaki guk informazioa badugula. Luzaroan ibili dira inpunitatean, diru publikoa kudeatuz, eta marra gorria begibistatik aspaldi galdua dute.

-Eta Nafarroako Gobernuak zer jarrera hartu du orain arte?

-Nahiko kezkatuak gaude hori dela-eta. Nafarroako Gobernuak baliabideak badi-tu soberan eredu erabat publikoa gartzeko, baina ez du urratsik egiten. Zerbait egin da, bai; baina kontua da ea noraino sakonduko den eredu berrian. Egia da dena ezin dela aldatu egun bate-tik hurrengora. Dena dela, hau ez da denbora-arazoa, norabide-arazoa baizik; eta hor ikusiko dugu gobernu honen ausardia noraino heltzen den. Nora goaz? Eredu publikoa nahi dugu? Edo azpikontratazioen ereduarekin jarraiki? Orain arte gobernuak esan digu UGTekin, CCOOekin eta CENekin dituen hitzarmenen erdiak mantendu nahi dituela. Baina CEN, UGT eta CCOO antolakundeen abantailak mantentzea ez dator bat aldaketarekin. ELAk gobernuari eskatzen dion gauza bakarra aukeraberdintasuna errespetatzea da, sindikatu guztiok baldintza berdinetan joka dezagun.

-Eredu demokratiko bat aipatzean zer duzu buruan? ELA Enpleguaren Nafar Zerbitzuan egon behar dela?

-Eztabaida honetan norbaitek garrantzi handiagoa ematen dio argazkiari, edukie baina. Gobernu guztiak nahi dute adostasunaren argazkia, mahai baten inguruan sindikatuak eta patronala eserita. Baina, guretzat, argazki horretara helduko bagara, edukien bidez izan behar da. Prestakuntza-eredua publikoa bada, gardena eta demokratikoa; guk koheren-tziaz jokatuko dugu. Egoera hori, hala ere, urrun dago oraindik. Nondik nora sartuko gara SNE-NEZn, salatu dugun gutzia salatuz?

Presupuestos de Navarra de 2016 ninguno de estos convenios bilaterales destinados a costear el funcionamiento de CEN, UGT y CCOO.

La directora del SNE no quiere controlar si se pagan las nóminas a CEN, UGT y CCOO.

La nueva directora del Servicio Navarro de Empleo (SNE), Paz Fernández, admitió el 4 de noviembre en el Parlamento de Navarra que se va a mantener un espacio de impunidad sin control público con los fondos del Presupuesto que se destinan a convenios directos con CEN, UGT y CCOO. En concreto, admitió que no sabe ni quiere controlar qué cantidad de los 11 millones destinados a convenios con estas entidades se emplean en pagar las nóminas de sus responsables, empleados y liberados sindicales.


Gure salaketak argitara atera ondoren, gobernu berriak formula horren bidez soldadak 2014an eta 2015ean kobratu zituztenen izenak ezkutatu zituen

Fernández aseguró que esta práctica es legal, algo que, en todo caso, tendrán que determinar los tribunales, y aseguró que esa parte de los convenios está avalada por Comptos, lo que no es cierto, porque esta entidad aún no ha entrado a analizar los convenios de 2014 y 2015.

En opinión de nuestro sindicato, el respaldo de UPN-PP y PSN a las explicaciones de Paz Fernández dejó claro que, con esta política de empleo, el actual Gobierno consolida y hace suya la red clientelar de siempre, implantada bajo los gobiernos de Sanz y Barcina, y potenciada cuando Javier Esparza (actual líder de UPN) era director del SNE. Esto se refuerza al constatar que los portavoces de 24 de los 26 parlamentarios que sostienen a Uxue Barkos (Geroa Bai, EH Bildu y Podemos) criticaron las explicaciones de la directora del SNE (apoyadas, paradójicamente, por la oposición).

Mención aparte merece la posición de I-E, que vuelve a defender la financiación de las estructuras de CEN, UGT y CCOO, coincidiendo una vez más con UPN-PP y PSN, en un asunto que se está revelando como la principal condición de este partido para seguir apoyando al Gobierno de Navarra.

DESDE IPARRALDE IPARRALDETIK



“Kolektiboaz, lehiari aurre”

**BETTI OURTHIAGUE, EUSKAL HERRIKO
ESNE KOOPERATIBAKO KIDEA**



Betti Ourthiague, esne ekoizlea eta Euskal Herriko Esne Kooperatibako kidea, irudiaren erdian, ator urdinarekin, Kooperatibako beste kideen artea.

› XABIER HARLUXET

-Zer da Euskal Herriko Esne Kooperatiba (EHEK)?

-Euskal Herriko Esne Kooperatiba 1970ean sortu zen batasun bat da, Ipar Euskal Herriko ardi eta behi esne ekoizleak bateratzen dituena. 1991. urtera arte, 3A -orain Sodial kooperatiba erraldoia bilakatu dena- kooperatibako kide ginen. Esne krisia zela eta makro-kooperatiba horren norantza estrategikoak ez genituen gehiago onartzen, eta urte hartan erabaki genuen gure independentzia berriz hartzea. Kamioi bat erosi genuen, esnea bildu, hura saldu... Guzti hau jakinez ardatz gisa genuela epe ertainean geroa eskutan hartzea, gasnategi eta dendak eraikiz. Egun Euskal Herriko Esne Kooperatiba 103 ardi eta behi hazleek osatua eta kudeatua den estruktura kooperatibista bat da.

-Zer da laborari batentzat EHEKn parte hartzeak ekartzen duen balioa?

-Kolektibo batean izaitzak, laborari soilak ez duen indar bat ekartzen du. Kooperatibak bere historian zehar borroka ainitz eramán izan behar ditu beste esnetegien -usu mutinazionalak-jokamoldeen aurka: esne inportazioak, gasnaren eta sormarkaren (Ossau-Irati) defentsak... Talde indartsu eta ideal kalitatibo berdinak izanez eraimaiten ahal diren fronteak dira.

Euskal Herriko Esne Kooperatiba ha comenzado una campaña de financiación para consolidar su proyecto, basado en un sistema agrario y ganadero ecológico, sostenible y que respete los derechos de las y los agricultores

Bestalde, kolektiboak ahal ekonomiko xumeekin ere proiektu eraikitzailea izaiten da. Gure kasuan gasnategi berri bat xutik emaitza izan da emaitza, bertako gasna, gurin ta esne kalitati-boak garatzeko aukerak eskainiz: sor markakoak (Ossau Irati), esne gordinarekin, ekologikoak...

-Gaur egun zertan da EHEK?

-Gaur egun EHEK-k, gasnategia -6 milio euro- eraikia eta dirustatua du, laborarien ekarpenari eta diru iturri tradizionaleri esker: laguntza publiko, bankoak, Herrikoa... Orain gure diru beharrak aktibitatearen garapen komertzialarentzat dira gehien bat. Segitu behar dugu esneki gamaren zabaltzean, komertzialak bidean ezartzen, sare komertzialak hedatzen...

Ikusiz bankuak uzkur direla bultzada horren sustengatzeko, dirustatze parte-hartzaile edo herrikoari (crowdfunding) itzuli gira. Dirustatze modu berri hori gure balore sozialekin egokia iduritu zaigu: gure baloreak partekatzen dituen jendartearen-gana goaz laguntza eske, bankuak saiheztuz. Crowdfunding-a biziki interesgarria da, ainitza da, baditu forma desberdin asko. Ondorioz egokiena hautatu eta egokitzen ahal den tresna da.

Bi ideki ditugu www.bulbintown.com/projects/clpb/accueil plataforman. Lehen, “diru emaitza bat sari baten ordainez” (jendarte zabalarari irekia da, diru zama bat emanez geroz araberako oparia ukanen duzu: gasnak, esnekiak, aste buru bat Alduden, aste bat Ipar Euskal Herrian...). Bigarrena “inbestizadoreeri itzulia” (inbertsio bat da gasnategian urtean %7 irabaziarekin). Dirustatze molde honek gure geroa baldintzatuko du: segitu ala gelditu. Bi hilabete hasia dela diru biltze kanpaina, ta azkar doa. Herriarrek ulertua dute tresna horrek baldintza dezakela biharko eredu ekonomiko eta soziala.

-Azken hamarkadetan laborantzari aterabide bakartzat “nazioarte mailako lehiari sartu, haunditu, industrializatu, gastuak ttipitu lehiakor izaiteko, kantitatea haunditu” erremedioa ekarzen duen politikari zein dira zuen aterabideak?

-Egia da laborantza globalizazio bete betean murgildu dutela agintari politiko eta ekonomikoek. Liberalismoaren izenean, laborantza sailtan ziren erregulazio mekanismoak deseginak izan dira. Azken adibidea da behi esne kuota: esne bolumenen ekilibratzeko printzipio hori Europar Batasunak 2015 ko apirillean hautsi du. Europako esne ekoizleak lehiari dira orain elgarren artean, egin ahal merke ekoiztu behar dute, praktikak aldatuz: behiak beti barnean, arto eta sojarekin...

Laborariak puxkatzen zituen agroindustriatik bereixteko bidea hartzea deliberatu ginuen. Laborantza modelo hortan gure etxalde tiki eta menditsuak ez dira lehiagarri izaiten ahal. Egin zen beraz gobernantzia eta kalitatearen hautua, gasnategi bat eraikiz kooperatiba moduan. Inportantea zen laborariak erabakitzaile izaita, baserrien mesedetara egokitzeko gasnategiaren hautuak. Ardi eta behi hazleek kalitatearen konpromisioa egin genuen, gutxiago ekoiztu baina hobea. Hazle guzti guztiak kalite ezagupen ofizial batean engaiatuak gara: Ossau Irati, Bleu Blanc Coeur, Laborantza Biologikoa... Epe ertainean, esneki eta gasna berri horiek bezeroak aurkituko dituztenean gure etxaldean geroa argituko da, lekuan enplegua sortuz.

Egun gogoangarria

URRIAREN 24AN BILBON EGIN ZEN ALTERNATIBEN HERRIA EKIMENAK EGUNGO SISTEMAREN AURREAN ALTERNATIBAK EGON BADAUDELA BERRETSI ZUEN

Economía social, comercio, finanzas, relaciones laborales, agricultura, autogestión, consumo, modelos energéticos, medio-ambiente, diversidad sexual, precariedad, soberanía alimentaria, educación, cultura, soberanía, democracia, integración, derechos humanos, feminismo, derechos lingüísticos, vivienda, monedas locales... Fueron muchos los temas que se trataron durante Alternatiben Herria



› G. QUEVEDO

Denborak aurrera egin ahala memoria lausotu egin ohi da.

Hala ere, 2015eko urriaren 24a letra larriz gordeta egongo da denbora luzez egun horretan Bilbon izan ziren guztien oroimenean. Erronka handia zen. Oso handia. Baina Alternatiben Herria ekimenak aise gainditu zituen aurreikuspen baikorrenak. Asteak, hilabeteak eta urteak igaroko dira, baina ekimen horren partaide izan ziren guztien memoria Alternatiben Herria bizirik egongo da.

Ez da harriztekoa. “Etsipenari aurre egin eta itxaropen mezua zabaldu nahi dugu. Baditugu alternatibak eta erakustera goaz”, aipatzen zuten Alternatiben Herriko bozeramaileek ekimenaren bezperatan. Baita lortu ere. Goizeko lehen orduetatik Bilboko Areatza eta Alde

La iniciativa Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas evidenció que otro mundo no sólo es necesario, también es posible

Zaharra egungo sistema bidegabearen aurrean uneotan Euskal Herrian lantzen ari diren alternatiben bihotza bihurtu zen.

Ekonomia soziala, merkataritza, finantzak, lan harremanak, nekazaritza, autogestioa, kontsumoa, eredu energetikoak, ingurumena, sexu aniztasuna, prekarietatea, elikadura subiranotasuna, hezkuntza, kultura, burujabetza, demokrazia, gizartratzea, giza-eskubideak, feminismoa, hizkuntz eskubideak, etxebizitza, tokiko txanponak... Hauek -eta beste asko- izan ziren egun osoan zehar landu ziren gaiak. Eta, zorionez, argi gelditu zen gai guzti horien inguruan gaur eta orain sistema bidegabe honi aurre egiten diren alternatibak lantzen ari direla Euskal Herrian.



Jendetza egun osoan zehar.

Milaka eta milaka izan ziren egun osoan zehar Alternatiben Herria ekimenara hurbildu ziren lagunak. Antolatu ziren ekimen guztietan -ehunetik goranabarmena izan zen parte-hartzea. Berdin zen hitzaldia, mahai-ingurua, zine-foruma, tailerra, erakusketa, azoka, dokumental proiektzioa, kale-ikuskizuna edo eztabaida irekia izatea, ekimen guztietan jende ugari hartu zuen parte. Helburu guztiak bete direla esan liteke, beraz: bestelako eredu sozial, politikoa eta ekonomiko bat lortzeko Euskal Herrian dauden alternatibak kalera aterratzea, guztien artean sareak eraiki eta sistema justu eta bidezkoago bat lortzeko bidean urratsak ematen jarraitzea.

Baina Alternatiben Herrian jaita eta ospakizuna ere protagonista izan ziren. Egun osoan zehar festa-giroa nagusia izan zen. Musika, haurrentzako ekimenak eta kale-animazioa ere ez ziren falta izan. Gainera, mokadu bat jateko edo zintzarria bustitzeko hamaika aukera egon ziren bai Karpa Nagusian zein Areatzako gunen ezberdinetan zehar. Eta zer esan! Kaxianoren Alabak musika taldeak erromeria itzela eskaini zuen. Bere musika eta erritmo alaiekin Karpa

Nagusian bildutako jendetza dantzan eta saltoka jartzea lortu zuten. Izan ere, ekimenak helburu hori ere bazuen: bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat lortzea eredu alaiago bat lortzea suposatuko duela erakustea.

ELA, Alternatiben Herrian. Asko izan dira Alternatiben Herria ekimenaren antolaketa buru-belarri aritu diren ELAko militanteak. Eta, gainera, egun osoan zehar ELAko protagonismo handia izan zuen. Goizean Bilborock aretoan Adolfo Muñozek 'Hemen lan eta bizi. Bertan erabaki' hitzaldian parte hartu zuen; bertan Lan Harremanen eta Gizarte Babesaren Euskal Esparruaren inguruan hausnartu zuen.

Arratsaldean, bazkaria eta gero, nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarrik TTIP hitzarmenak Euskal Herriko langile-klasearentzat izango dituen ondorio kaltegarriak izan zituen hizpide, Europa sozialaren eta egun negoziatzen ari diren nazioarteko merkataritza itun ezberdinen inguruan antolatu zen eztabaidan. Bitartean, negoziazio kolektiboaren arduradun Joseba Villarreak prekaritatearen inguruko mahai-inguruan aritu zen. Villarreak argi eta garbi azaldu zituen arazo larri honi aurre egiteko ELAko dituen egitasmoak eta daraman borroka. Gainera, ELAko zein Manu Robles-Arangiz Fundazioak postu bana izan zuten Areatzan eta Plaza Barrian.

La gran asistencia de público es una demostración del interés que ha generado en gran parte de la sociedad esta iniciativa

Etorkizunerako erronkak.

Agerian gelditu da urriaren 24koa egun handia izan zela, ehunka lagunek modu isilean hilabete luzez egindako lan bikainen emaitza. Baina egun horretan ez zen ezer amaitu. Alternatiben Herria ekimenak prozesu osoan zehar saretu diren alternatiba horiek garatzeko eta sustatzeko akuitu izan beharko luke. Alternatibarik ez dagoela diotenen aurrean, Bilbon agerian gelditu zen alternatibak egon badaudela, gure artean ditugula, egunero-egunero lantzen ditugula.

Alternatiben Herria ez da egun bateko kontua izan. Prozesu honetan buru-belarri lanean aritu diren eragile ezberdinen arteko elkar-lana are eta gehiago suspertzeko abiapuntua izatea da helburua. Ekimena Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren deialdiari jarraiki egin gauzatu zen. Hain zuzen, aurrera begirako lan horri jarraipena eman asmoz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak 2016ko urtarrilaren 23 bere asanblada orokorra egingo du. Bidea hasi besterik ez da egin.



KONTSUMITZEA BIZIIZATEKO, ETA EZ BIZIIZATEA KONTSUMITZEKO



› J.JAIO / B.F.A

Azaroaren 29an Bilboko kaleetatik beste manifestazio bat ikusi zen dendak igande eta jai-egunetan irekitzearen aurka. Berriz ere sindikatuek, sektoreko langileek, kontsumitzaileen elkarteek, Euskaldendak-ek -herri eta hirietako denda txiki gehienak elkartzen dituen patronalak- eta herritarrek, orokorrean, argi eta garbi esan zieten erakundeei ezetz, EAEk uharte txiki bat izaten jarraitu nahi duela, non O irekiera egiten den, ez duela nahi ordutegiak liberalizatzetik, Estatuan jasan behar duten bezalakorik.

Berriro ahalegintzen ari dira ordutegiak zabaltzen. Merkataritza-kate handien helburua da hori, eta erakundeek haien esanetara egiten dituzte legeak. Oraingo honetan aitzakia turismoa da. Hori giltza izango balitz bezala, EAEko herri eta hirietako denda gehienak urtero hartzen ditugun *milioika* bisitarien menpe egongo balira bezala. Eusko Legebiltzarrean Merkataritzaren Legearen laugarren aldaketa eztabaidatzen ari dira. Euskal lege hori Estatuko legearen kopia hutsa da, eta turismo-guneez baliatzen da merkataritza-ordutegiak araugabetzeko.

Mehatxu berri horren aurrean, O irekieraren aldekoek berriro azpimarratzen ditugu gure arrazoiak: igande eta jai-egunetan irekitzea ez da gizartearen eskaria, ez da egokia salmentak ugaltzeko, eta ez du enplegurik sortzen. Gure gogoko ordutegia, atsedena hartzeko eskubidea errespetatzen duena da, eta igande eta jai-egunetan aisialdia izateko aukera ematen diguna. Ez gatoz bat dendak jai-egun batzuetan salbuespenez irekitzearekin, zeren argi eta garbi estrategia bat da, sektoreko langileen gehiegizko praktika hori *normalizatzeko*.

Nabigatzaileentzako abisua: igande eta jai-egunetan irekitzeko aukera ematen duen lege bat prestatzen badute, paper erreka izango da, hori gure kontu: azaroaren 29an bildu ziren milaka manifestarik argi dugu.

“Kontsumitzen dut, beraz banaiz” sines-tarazi nahi digute. Bistan da merkataritza-kate handiek ordutegi-liberalizatzearekin lortu nahi dutena: denda txikietan egiten den kontsumoa berenganatzea. *Kontsumitzen dut, beraz banaiz* da goiburua, eta orain abenduan areagotu egiten da: kontsumitzen badut, zoriontsua naiz. Olentzero, Aita Nöel, Errege Magoak... dena da zilegi jendeak gero eta gehiago kontsumitu dezan.

Honen bidez gonbidatzen zaituztet itxurazko Eguberri-espíritu horretatik alde egitera, eta benetakoa berreskuratzera. Etxekoen eta lagunen artean egon, bakea, harmonia, elkartasuna, gutxiago dutenak gogoan izan... Gizakiak izan gaitetzen, eta ez kontsumitzaile hutsak. **2016. urte berri on.**

